

**E28: GURE HARROTASUN KRITIKOAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

Kaixo guztioi!

Ekainaren 28an, gure harrotasun kritikoaren nazioarteko egunean, aniztasunarekin, inklusioarekin eta giza eskubideen aldeko borrokarekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu; norberak askatasunez hautatutako sexualitatea edo generoa edozein dela ere.

Ekainaren 28an, Stonewalleko matxinada historikoari gorazarrea egingo diogu. Izan ere, sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko borrokaren mugarririk izan zen: erresistentzia, ikusgarritasun eta aldarrikapen mugimendu baten hasiera. Lortutako aurrerapenak ospatzeko eguna da; baina, baita gure gizartean oraindik ere dauden desberdintasunen eta bidegabekerien inguruan hausnartzeko eguna ere.

Gaur, hainbesteko garrantzia duen egunean, gure harrotasuna ikuspegi kritiko eta inklusibo batetik ospatzearren garrantziaz hausnartu nahi dugu. Harrotasun kritikoak, sexu eta genero eskubideetan eman diren aurrerapausoak oroitzera ez ezik; gonbidatzen gaitu egiteke dauden borrokak, desberdintasun iraunkorrik eta isildutako ahotsak eta bizitzak aitortzen. Beraz, ezin ditzakegu ahaztu Palestinan Israelgo estatu genozidaren menpe bizi diren hainbat eta hainbat pertsonarenak.

Ospakizunaz haratago, harrotasun kritikoak aukera ematen digu honakoak zalantzian jartzeko: botere-egiturak; errrotutako diskriminazioak; eta, banakoentzako egunerokotasuna baldintzatzeaz gain, gure bizitzak, zein bizi garen mundua mehatxatzen dituzten desberdintasunak.

Gure mugimendua, historikoki, diskriminazioaren eta marginalizazioaren aurkako erresistentzian, ausardian eta borrokan oinarrituta eraiki da. Lorpenak lorpen, oraindik ere indarkeria, bazterketa edo ikusezintasunaren tankerako erronkei aurre egiten diegu.

Horregatik, eta beste hainbat arrazoiengatik, zatoz gurekin, 19:30etik aurrera, La Casillatik (Bilbo) abiatuko den E-28ko manifestaziora.

**EMAN EZAZU ZEURE BURUA EZAGUTZERA ETA BORROKATU,  
GURE ESKUBIDEAK EZ DAUDE SALGA!  
MOBILIZAZIORIK GABE EZ DA ESKUBIDERIK LORTZEN!  
HOBE ELKARREKIN BANANDUTA BAINO!  
EZ DADILA INOR FALTA!**

**28J: DÍA INTERNACIONAL DE NUESTRO ORGULLO CRÍTICO**

Estimados todos!

En el marco del 28J, *Día Internacional de nuestro orgullo crítico* queremos reafirmar nuestro compromiso con la diversidad, la inclusión y la lucha por los derechos humanos de todas las personas, independientemente de la sexualidad o género que deseen.

El 28J conmemoramos la histórica revuelta de Stonewall, un hito en la lucha por la diversidad sexual y de género que marcó el inicio de un movimiento de resistencia, visibilidad y reivindicación. Es una fecha para celebrar los avances conseguidos, pero también para reflexionar sobre las desigualdades y las injusticias que aún persisten en nuestra sociedad.

En un día como hoy queremos reflexionar sobre la importancia de celebrar nuestro orgullo desde una perspectiva crítica e inclusiva. El orgullo crítico nos invita a no solo conmemorar los avances en los derechos sexuales y de género sino también a reconocer las luchas pendientes, las desigualdades persistentes y las voces y vidas silenciadas, como las de tantas personas en Palestina por un estado genocida como es el de Israel.

Más allá de la celebración festiva el orgullo crítico nos invita a cuestionar las estructuras de poder, las discriminaciones arraigadas y las desigualdades que condicionan el día a día de las personas y amenazan seriamente nuestras vidas y el mundo donde habitamos.

Nuestro movimiento históricamente se ha construido sobre la resistencia, la valentía y la lucha contra la discriminación y la marginalización. A pesar de los logros conseguidos, aún enfrentamos desafíos como la violencia, la exclusión o la invisibilidad.

Por esto y tantas razones acompañanos en la manifestación del 28-J que saldrá de la Casilla (Bilbao) a partir de las 19,30 h.

**¡VISIBILÍZATE Y LUCHA, NUESTROS DERECHOS NO SE VENDEN!  
¡SIN MOVILIZACIÓN NO SE CONSIGUEN DERECHOS!  
¡MEJOR JUNTES QUE SEPARADES!  
¡QUE NO FALTE NADIE!**